

HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2802/22_06

Finantzen Euskal Institutua arautzen duen Lege-aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan urtarrilaren 26an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ekonomia eta Ogasuna saileko Zerbitzu zuzendaritzatik, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2. l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena urtarrilaren 10ekoa da eta urtarrilaren 26koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Xedapenaren prozedurari abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea aplikatzen zaio, ekainaren 30eko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen xedapen iragankorrak dioenaren arabera.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Dekretu Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:



“...betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

2. artikulua Xedapen honen helburuak eta jarduteko printzipioak arautzen ditu.

“Finantzen Euskal Institutuak, bere helburuak eta agindutako eginkizunak betetzean, printzipio hauek bete beharko ditu: legezotasuna, objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia, lankidetzeta eta leialtasun instituzionala, arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioa, interes orokorra eta soziala, eta kudeaketa ona. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua eta herritarrekiko interakzioa gidatzen duten gainerako printzipioak bete beharko ditu”.

4. artikulua dio Finantzen Euskal Institutuaren gobernu-organoak Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Nagusia direla eta bere eginkizunetako batzuk batzorde betearazle batean edo batzuetan eratu eta eskuordetu ahal izango dituztela. Administrazio Kontseiluaren osaera arautzen du, eta 3. atalean xedatzen da kideak izendatzean, emakumeak eta gizonak modu orekatuan ordezkatzuta egongo direla.

Hizkuntzaren normalizazioa zein genero berdintasuna biak dira politika publikoetako zeharkako gaiak; kasu honetan, administrazio kontseiluaren osaerari dagokionez ikusten dugu, eta egokia iruditzen zaigu, genero berdintasunaren aldagaia kontuan hartzen dela; aldiz, hizkuntza normalizazioari buruzko aurreikuspenik ez da jasotzen. Gomendagarria litzateke normalizazioaren gaia era berean kontutan hartu eta jasotzea eta horrelako testu bat jasotzea:

Kontseiluko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

Bestalde, lege-aurreproiektuaren 6. artikulua Institutuaren langileaz dihardu. Finantzen Euskal Institutuari dagokio lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapeneko prozeduren deialdia, kudeaketa eta ebazpena egitea ere, publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera. Hori horrela izanik, eta EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko, Institutuaren lanpostuen betetzean euskararen ezagutza ere kontutan hartzea eskatzen dugu.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria